XUL

Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Proportzionaltasuna eta ehuekoak – Buruketak	Data:

OHARRA: <u>Prozedura argi eta garbi</u> egotea derrigorrezkoa da.

1) Elurra kentzeko **bi makinak 60 minutuan** garbitu dute errepide-tarte bat.

a) Zenbat **denbora** beharko **luke makina bakarrak**? _____ minutu.

2) **Depositu** bat betetzeko, **hiru txorrota** berdin daude. **Bi zabalduz** gero, **depositua 12 minutuan** betetzen da.

a) Zenbat **denbora** beharko dute **hiru txorrotak** depositua betetzeko? _____ minutu.

3) Lorezain **18 minutu** behar ditu **200 m²-ko** lursail bat bateko belarra ebakitzeko.

a) Zenbateko azalera ebaki dezake ordu eta erdian ? _____ m²-ko azalera.

4) Fruta-denda batean, 64 kaxa laranja izaten dituzte egunero zabaltzean.

a) Egunean zehar **%75 saltzen** badituzte, zenbat kaxa **geratzen** zaizkie denda ixtean? _____ kaxa.

LIVEWORKSHEETS

XUL

Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Proportzionaltasuna eta ehuekoak – Buruketak	Data:

5) 18 € balio zuen kamiseta bat % 20 merketu dute.

a) Zenbat € balio ditu orain (bi hamartar)? _____ €.

6) Udalak **% 30-ko beherapena** egiten du isunetan aurreneko 48 orduen barruan ordainduz gero.

a) Zenbat ordaindu beharko dut 75 €-ko isuna, azkar ordaintzen badut (bi hamartar) ? _____ €.

7) Gona batek **50 € balio zuen** joan den hilean, baina Adelak 45 € ordaindu du beherapenetan, hau da, orain.

a) Ehuneko zer beherapen egin diote gonari ? % _____.

8) **% 25eko beherapena zuen** musika-ekipo bat **150 € ordaindu dut**.

a) Zenbat balio zuen beherapena egin aurretik ? _____ €.

LIVEWORKSHEETS